



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

www.aranguren.es



HIRI KANPALDIA ARANGUREN IBARRA 2026



NABARMENTZEKO

FAMILIA ETA HAURTZAROA

- 2. OR → UDAKO HIRI KANPALDIA
- 4. OR → HAURTZARO DIAGNOSTIKOA
- 5. OR → AHOTS OZENEKO IRAKURKETA TAILERRA
- 5. OR → GURASOENTZAKO TAILERRA: ADIN TXIKIKOAK ETA ALKOHOLA

GAZTE ETA HELDUAK

- 6. OR → "ERRESPEZUKO BANANTZEAK: SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK"
- 6. OR → LAN-AURREKO TAILERRA

ADINEKOAK

- 7. OR → ERABILERA ETA PRIBATASUNA MUGIKORRAREKIN

ADINEKOAK

- 7. OR → ETXEZ ETXEKO FISIOTERAPIA ZERBITZUA ADINEKOENTZAT

ZURE INTERESEKOA IZAN DAITEKE

- 8. OR → HAUR ETA NERABEEK MUGIKORRETARA DUTEN SARBIDEARI BURUZKO HAUSNARKETA

HIRI KANPALDIA ARANGUREN IBARRA 2026



IZEN EMATEAK ETA ORDAINKETA:

MAIATZAK 14, 15 eta 18, erroldatuak
19an erroldatu gabeak (plaza libreak
geratzen badira).

948 012 012 TELEFONORA DEITUZ
(doan tarifa finkoa duten telefonoentzat)

ORDUTEGIA: 08:00etatik 18:00etara

Aranguren Ibarreko Udaleko
Gizarte Zerbitzuak antolatzen
duen Hiri Kanpaldiaren
helburu nagusia Aranguren Ibarreko
emakume eta gizonen familia, lana
eta bizitza pertsonala bateragarri
egiten laguntzea da. Horretaz gain, 4
eta 12 urte bitarteko (2014 eta 2022
bitartean jaiotakoak, biak barne)
haurrentzako aisialdiko baliabide
garrantzitsua da.

INFORMAZIO GEHIAGO:
OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
Mutiloa Plaza
www.aranguren.es
948 15 13 82



DATAK:

- ▶ Ekainaren 22tik uztailaren 3ra.
- ▶ Uztailaren 20tik abuztuaren 28ra.

ORDUTEGIA:

Jantoki zerbitzua barne:

- ▶ Goizeko 7:45etik 15:15era

Jantoki zerbitzurik gabe:

- ▶ Goizeko 7:45etik 14:00etara.

Sarrera goizeko 7:45etik 9:00etara egin ahalko da.
Irteera 13:30etik 14:00etara egin ahalko dute
jantoki zerbitzurik ez dutenek eta 14:30etik
15:15era jantoki zerbitzua dutenek.



LEKUA :

- ▶ Gehien bat, Mutiloako San Pedro Ikastetxe
Publikoan.

EGITARAUA:

- Gai ezberdinei buruzko tailerrak eta jolas
edo kirol-jarduerak egingo dira,
zeharkako kontzeptuak landuz
(kulturartekotasuna, ingurumena,
koedukazioa, etab.).
- Eguraldiak aukera ematen badu,
jarduerak igerilekuan
egingo dira.



KANPALDIAREN PREZIOA:

Hiri-kanpaldiaren kostua honakoa da:

- Hour bat: 50 € astean.
- Bi hour: 87,50 € asteko.
- Hiru hour: 115,62 € asteko.

Hiri-kanpaldiaren prezioa EZ ERROLDATUTAKO
haurrentzat:

- Hour bat: 100 € astean.
- Bi hour: 200 € asteko.
- Hiru hour: 300 € asteko.

Jantoki zerbitzua nahi izatekotan:

- Hour bakoitzeko asteko prezioa:
47,5 € (9,5 €/eguneko).

ANTOLAKETA:

Haurrak taldeka banatuko dira bi irizpide
hauen arabera:

ADINA:

- ▶ **A taldea, 4 – 6 urtekoak** (2020-2021-2022
urteetan jaiotako haurrak)
- ▶ **B taldea, 7 – 9 urtekoak.** (2017-2018-2019
urteetan jaiotako haurrak)
- ▶ **C taldea, 10 – 12 urtekoak.** (2014-2015-2016
urteetan jaiotako haurrak).

HIZKUNTZA MODALITATEA:

- Gaztelaniazko taldea: eguneroko jarduera
ingelesez.
- Euskara taldea: eguneroko jarduera ingelesez.
- Ingelesezko taldea: jarduera guztiak ingelesez.



KONTUAN IZAN:

- ▶ Familia-unitate bakoitzak parte hartuko duen
seme-alaba bakoitzeko aurre-izen emate bat
egingo du.
- ▶ Hiri kanpaldiek 8 aste iraunen dute, eta
familia bakoitzak gehienez ere 2 aste
hautatzen ahalko ditu parte hartzeko. Izena
ematen duen hurrenkeraren arabera esleituko
dira plazak, eta txandakakoak izan daitezke.
- ▶ Ez da epez kanpoko aurre-izenematerik
jasoko.
- ▶ Familiaren batek baja hartzen badu izena
eman ondoren, edo Udalarenak ez diren
arrazoiengatik kanpamendura joaten ez
bada, ez du ordaindutako zenbatekoa itzuliko
(ezinbesteko kasuetan izan ezik, hala nola,
haurra edo aita/ama ospitaleratzea...).



Aranguren Ibarrek haurrei entzuten die: 0-12 urteen diagnostikoa hasi da

Ibarreko neska-mutilak nola bizi diren, zer behar duten eta beren udalerrria nola irudikatzen duten ezagutzeko prozesu parte-hartzailea.



Udalak, Gizarte Zerbitzuen Sailaren bitartez, Udalerriko Haurtzaroaren lehen Diagnostikoa jarri du abian. Prozesu horri esker, 0-12 urte bitarteko haurren errealitatea sakon ezagutu ahal izango da, eta haiengana zuzendutako etorkizuneko udal politikak bideratu ahal izango dira.

Aranguren Ibarra udalerrri gaztea da, eta Nafarroako batezbestekoa baino askoz ere haur gehiago ditu (% 18,29 eta % 11,99, hurrenez hurren). Errealitate horrek aukera bat planteatzen du, baina baita ardua bat ere: Ibarreko neska-mutilak nola bizi diren ondo ulertzea, haien beharrei hobeto erantzun ahal izateko.

Horretarako, Udalak diagnosi prozesu bat bultzatu du, Iruñerrian parekorik gabea, ez dena datuak aztertzeraz mugatzen, haurren eta hauen inguruko ahotsa erdigunean jartzen baititu. Izan ere, diagnostiko hori ez da haurtzaroaren inguruan egingo, baizik eta haurtzaroarekin.

Prozesuak ikuspegi berritzailea eta parte-hartzailea du, eta honetan haurrak (tailer, ibilaldi eta dinamika egokituen bidez), haien familiak (inkesta eta laborategiak), Ibarreko 3 ikastetxeak, bertako kirol, kultura eta gizarte-erakundeak eta udal-teknikariak inplikatu dira. Honetaz gain, kontuan hartuko da haurrei eragiten dieten errealitateen aniztasuna (generoa, adinak, familia-egoera edo zaurgarritasun-egoerak). Gainera, emaitzen aurkezpen publikoa egingo da, erakusketa ibiltari baten bidez, haurrekin zerikusia duten ibarreko hainbat gunetan.

Haurtzaroaren Diagnostikoa askotan erabakietan ahotsik ez dutenak, neskak eta mutilak, kontuan hartzen dituen Ibar bat eraikitzekeo tresna bat da. Izan ere, haurtzaroari entzutea politika publiko hobe egiteko modu bat da.

PARTE HARTU NAHI DUZU?

Familia bazara, haurtzaroarekin lan egiten baduzu edo zure ikuspegia eman nahi baduzu, lotura honen bidez egin dezakezu:
<https://www.aranguren.es/eu/aranguren-ibarreko-haurtzaroaren-diagnostikoa/>



Ahots ozeneko irakurketa tailerra, familia irakurzaleentzat



Azterketa eta ikerketa askok azpimarratzen adute irakurmena eta irakurzaletasuna funtsezkoak direla: etxean liburuak izateak eta gurasoek egiten dituzten irakurketa-jarduerak lotura zuzena dute seme-alaben eskola-errendimenduarekin eta irakurtzeko nahiarekin.

Ozenki irakurtzea izan da haurrak irakurketaren munduan hasteko eta interesatzeko eta, ondorioz, irakurle trebeak izaten laguntzeko bide eraginkorrenetako bat.

Ozenki irakurtzen zaien haurrek askoz hitz-jario handiagoa jasotzen dute liburuen irakurketarik entzuten ez dutenek baino.

DATAK: ekainak 4 eta 11, ostegunetan
 ORDUTEGIA: 17:00-18:30 h.
 LEKUA: Kultur Etxea (kanpoko gela).
 EMAILE: Patxi Bueno Aramendía,
 terapeuta familiarra.

ZUZENDUTA: 0 eta 10 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei.
 IZEN-EMATEA: 948 012 012 zenbakira deituz, 8:00etatik 18:00etara, maiatzaren 26tik 29ra; kontziliazio-zerbitzua egongo da, gutxieneko eskaera-kopurua izanez gero.

Adingabeko seme-alabak dituzten gurasoentzako alkohol-kontsumoari buruzko prebentzio-tailerra



Udarekin batera, guztiok hainbeste espero ditugu herriko festak iristen dira, lagunekin eta familiarekin gozatzeko uneak. Etxean, gure seme-alabekin, alkoholari buruz, kontsumitzen denari buruz eta festetan egiten denari buruz hitz egiteko garaia da. Horretarako, 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako prebentzio hitzaldi bat proposatzen dizuegu Gizarte Zerbitzutik, nerabeen artean alkoholaren kontsumoaren prebentzioak duen garrantzia ezagutzeko.

Trebakuntza honen bidez, Aranguren ibarreko familiak alkoholaren kontsumoaren aurrean babesteko faktoreak bultzatu nahi ditugu.

Ondorengo galderei eta antzekoei erantzunen zaie:

- ▶ Zergatik da garrantzitsua alkoholaren kontsumoari aurrea hartzea?
- ▶ Zergatik kontsumitzen dute alkohola nerabe batzuek?

- ▶ Zer egin dezakegu familialtik?
- ▶ Nire seme edo alaba alkohola kontsumitzen ariko al da?

DATA: asteazkena, ekainak 3.
 ORDUTEGIA: 18:00-20:00 h.
 LEKUA: Aranguren Ibarreko Udaleko Erabilera Anitzeko Gela (sarrera atriotik).

NORI ZUZENDUA: 12 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzat, lehenetsuz.
 EMAILEA: Ilundain Fundazioko Psikologoa.
 IZEN EMATEA: maiatzaren 26tik eta 29ra, 948 012 012 telefonora deituz, 8:00etatik 18:00etara.

ERRESPETUZKO BANANTZEAK": SENTSIBILIZAZIO KANPAINIA



Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak banantze edo dibortzio bati buruzko sensibilizazio eta informazio kanpaina bat jarri du abian, bi aldeen arteko errespetuan oinarrituta.

Egoera zail horretan dauden pertsonen lagundu eta haien pentsamenduei eta ekintzei buruz eta horrek guztiak haien familia-egoeran dituen ondorioei buruz hausnartzeko gaitasuna eman nahi zaie.

Kanpaina honen bidez, banantzeko akordioan landu beharreko gaiak eta alderdiak jakinarazten dira.

Era berean, komunikazio-trebetasunak eta tresnak azaltzen dira, gurasoak gatazkatik elkarlanerako jarrerara igaro daitezela lortzeko, eta, hala, akordioak lortzeko eta gatazkak ez okertzeko.

Horretarako, laguntza ematen zaie familiei haien prozesuetan, elkarren arteko adostasunera hurbil daitezela, eta horrek ongizatea ekarriko die, bai familiei, bai haien seme-alabei.

Gai hau interesatzen bazaizu, **Oinarrizko Gizarte Zerbitzura deitu dezakezu 948 151 382 telefonora** eta hitzordua eskatu informazio gehiago eskuratzeko.

LAN AURREKO TAILERRAK

HIRI ALTZARIEN MANTENTZEA ETA MARGOKETA

50 ordu teoriko-praktiko



Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 18 urtetik gorakoentzat, langabezia eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (Lansare) alta emanda eta indarrean badaude.

Lehentasuna emanen zaie aurreko baldintzak bete eta Enplegu Planetik egindako lan aurreko **tailerretan parte hartu ez dutenei** eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik lehentasunezko zatitza jotzen direnei.

⇒ **DATAK**
Abuztuaren 3tik 14ra. Taldea bete bada eta itxarote-zerrendan pertsona kopuru nahikoa geratzen bada, beste bat egingo da abuztuaren 17tik 28ra.

⇒ **ORDUTEGIA**
07:30etik 12.30era, astelehenetik ostiralera.

⇒ **NON EMANGO DEN**
Ikastaroa Aranguren Ibarreko eremu ezberdinetan eman ahal da.

⇒ **PLAZAK**
talde bakoitzak gehienez ere 8 pertsona izango dituzte.

⇒ **IZEN EMATEA**
Ekainak 10 eta 11 948 012 012 telefonora dei eginez, 08:00etatik 18:00etara.

ERABILERA ETA PRIBATUTASUNA MUGIKORRAREN ERABILERAN: OINARRIZKO KONTZEPTUAK



60 urtetik gorako pertsonentzako tailerra (lehentasunez).

Tailer honen helburua adinekoei teknologia hurbiltzea eta gailu eta tresna teknologikoak, hala nola ordenagailua eta mugikorra, erabiltzean autonomoagoak izateko behar diren baliabideak eskaintzea da. Doako tailerra.

Mugikorraren oinarrizko erabilerari buruz ikasi eta zalantzak argitu behar dituzten pertsona guztiei zuzenduta dago.

Tailerrean aplikazio erabilieneen errepaso egingo da (WhatsApp, Gmail, Drive,...) eta **gailuen segurtasunari buruzko oinarrizko alderdiak ere landuko dira.**

Tailerrean ikasleen ezagutza-beharretara eta erritmora egokituko da.

Tailerre batez ere praktikoa izango da, eta beharrezkoa da parte-hartzaileek erabili nahi duten gailua ekartzea (mugikorra, tableta edo ordenagailua).



DATAK: ASTEAZKENAK, MAIATZAK 27; EKAINAK 3 ETA 10

ORDUTEGIA: 11:00ETATIK 13:00ETARA

LEKUA: JUBILATUEN ELKARTEKO JARDUEREN GELA, MUTILOA PLAZAKO 5.EKO LEHENENGO SOLAIRUA

EMAILEA: COCOKIDS

IZEN-EMATEA: MAIATZAREN 15ETIK 20RA, 948 012 012 ZENBAKIRA DEITUZ

ETXEZ ETXEKO FISIOTERAPIA ZERBITZUA ADINEKOENTZAT



Aranguren Ibarreko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak etxez etxeko fisioterapia zerbitzu berri bat jarri du martxan.

Zerbitzua Aranguren Ibarreko 65 urtetik gorako pertsonen osasun egoera eta bizi kalitatea hobetzera edo mantentzera bideratuta dago, menpekotasun egoeran edo egoteko arriskuan daudenean, etxean bertan fisioterapia tratamenduak eginez.

Helburua ariketa fisikorako eta arreta fisioterapeutikorako programetarako sarbidea erraztea da, beste baliabide edo zerbitzu batzuk eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonen, dituzten ezaugarri funtzionalengatik, mugikortasunarengatik edo osasunarengatik.

Tratamenduak gaitasun funtzionalaren galerari zuzenduta daude, baita autonomia mailan eragiten duten patologia

kronikoen konplikazioak prebenitzeari eta arintzeari ere.

Zerbitzua erabili ahal izateko, zerbitzuaren beharra baloratu eta aztertu beharko da, eta ezarritako irizpide eta baldintzak bete.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO, DEITU ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAN: 948 151 382 TELEFONOAN

► HAUR ETA NERABEEK INTERNET DUTEN GAILU MUGIKORRETARA DUTEN SARBIDEARI BURUZKO HAUSNARKETA

Norentzat: haur eta gazteen unibertsoan lan egiten duten edota harremanetan dauden pertsona, familia edota taldeentzat

Dekalogo haurtzaroan eta nerabezaroan pantailak segurtasunez erabiltzeko

العربية
Guztazkoak
English
Français
Română

Non. Etxean, ordenagailua, kontsola..., hobe leku komun batean.

Noiz. Errespetatu lo orduak, harremanak, ikasketak, bestelako jolasak....

Zer. Sarbideak, edukiak, jolasak... neska edo mutil bakoitzaren adin eta garapen mailarako egokiak izan daitezela.

Nola. Norberaren pribatasuna eta intimitatea zainduz. Norberaren datuak, informazioak eta irudiak babestuz.

Errespetuz. Beti eskatu baimena etiketatzeko eta irudiak eta informazioak pasatzeko. Kontuan hartu norekin partekatzen diren.

Zenbat. Haiekin bizi, ez haientzat. Adostu zenbat denboran erabili.

Zertarako. Pantailak eta Internet helburu zehatzekin erabili, ez asperduraz.

Alternatibak. Beste aisia mota batzuk proposatzea, familiarekin partekatzea jarduerak.

Erabilera desegokia. Hitz egin ikusmenean izan ditzakeen ondorioez, isolamenduaz, sedentarismoaz, arreta galtzeaz...

Beti. Hitz egin, entzun, galdetu eta laguntza eskatu. Etxean ematen dugun ereduaz hausnartu.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua 2020 DL NA 1621-2024

Gaur egun, ia ezinezkoa da gogoratzea berehalako sarbidea ez zegoen garai ez hain urrun hori.

Etorrera suntsizaile honek aldaketa handiak ekarri ditu gizartearen alderdi askotan, komunikatzeko eta pertsonen artean erlazionatzeko moduan.

Ezin da ukatu bilakaera teknologiko horrek ekarri dituen aurrerapen positiboak, baina zenbait arrisku ere ekarri dizkigu, eta, pertsona, familia, erakunde publiko eta gizarte gisa, kontuan hartu behar ditugunak.

Kezkarik handienetako bat adingabeek interneterako sarbidea duten gailuak eskuratzeak, eta horrek dakarren arriskuaren ingurukoa da. Ba al dago adin zehatzik haur batek gailu horiek eskuratzeko? Hori da gehien egiten dugun galderetako bat.

Datuek adierazten dutenez, adingabeak dira teknologiarako sarbide unibertsal horren aurrean ahulenak, eta helduen, familien, haurrekin lan egiten duten erakundeen eta gizartearen erantzukizuna da ingurune birtuala fisikoa bezain segurua izateko behar diren neurriak hartzea. Horretarako, neurri gisa (besteak beste), gailu horietarako sarbidea atzeratzea planteatzen da, haurrek eta nerabeek aparatu horiek modu egoki eta autonomoan kudeatzen jakin arte.

Orain dela gutxi, ehunka familia biltzen dituen mugimendu bat sortu zen, Interneterako sarbidea duten gailuen erabilera desegokiak

dakartzan ondorio kaltegarriengatik kezkatuta. "Mugikorrik gabeko nerabezaroa" da ekimena, eta lotura honetan duzu informazio gehiago: <https://www.almna.org/>

Ekimen honekin bat egin dute erakunde, elkarte, udal, guraso elkarte eta abarrek.

Aranguren Ibarrek ere badu gai honekiko kezka, eta badira, Udaletik bezala, horretan lanean eta mobilizatzen ari diren pertsona eta kolektiboak ere.

Gizarte Zerbitzutik Lan Talde partehartzaile bat osatu nahi dugu gai honen inguruan, pertsona edota kolektibo guztien ahaleginak batzeko.

PARTE HARTU NAHI BADUZU, JARRI HARREMANETAN GIZARTE ZERBITZUEN 948151382 TELEFONO-ZENBAKIRA DEITUTA. ZURE DATUAK JASOKO DITUGU, ETA LEHEN BILERARAKO DEIALDIA EGINGO DIZUGU

QR honi jarraituz pantailen eta teknologia berrien erabilera seguruari buruzko gidak eta informazio gehiago:

<https://www.navarra.es/home/es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+Organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Publica/Publicaciones/Planes+estrategicos/Plan+Foral+de+Drogodependencias/Pantallas.htm>

